

Patxi Larrañaga Igartua

*Bergara,
Gipuzkoa
(1942)*

Aurkibidea

Biografia



Elosuko Narbaiza baserrian jaioa. Gaztetan 5-6 txondor egiten zituzten baserrian, ikatza saltzeko.

Txondorgintzari buruzko elkarrizketa egin genion.

[Manuel Oruesagasti](#) auzokidea ere elkarrizketatu genuen gai beraren bueltan.

Zintak

BER-335

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia

- **Data:** 2017-05-17
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Mutikotatik txondorren bueltan

- **Erref:** BER-335/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:00:53. **Bukatu:** 00:02:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Mutikotatik ikusi izan ditu txondorrak, urtero 5-6 egiten zituzten eta. Artoa erein eta gero, bi hilabete inguru izaten zituzten, eta sasoi horretan txondorra egiten zuten, neguan botatako egurrarekin. Dirua irabazteko egiten zen ikatza. Soraluzera eramaten zuten saltzera, hango lantegi txikietara, gurdian hartuta. 16 urterekin hasi zen ikazkintzan, anaiari laguntzen.

2. Ikazkintzarako egurra batzea auzolanean

- **Erref:** BER-335/004
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:02:48. **Bukatu:** 00:03:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Auzoan baserri gehienek egiten zuten ikatza. Auzotarrek elkarri laguntzen zioten, egurra batzen adibidez. Bizkarrean ekarri behar izaten zen egurra, txara artera gurdia sartzea ezinezkoa zen eta.

3. Txondorrak noiz gutxitu ziren Elosu auzoan

- **Erref:** BER-335/006
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Mutikotatik ezagutu izan ditu txondorrak. 12 urtera arte eskolan ibili zen, baina handik atzera baserriko lanetan lagundu behar. Berak 20 urterekin utzi zuen ikazkintza. Sasoi horretatik aurrera txondor gutxi egin zen auzoan.</p>

4. Pagoa eta artea ikazkintzarako egurrik onenak

- **Erref:** BER-335/008

- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:06:11. **Bukatu:** 00:07:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Pagoa edo artea dira egurrik onenak ikazkintzarako. Gaztaina ere erabiltzen zuten batzuek. Beraiek gehien pagoa erabiltzen zuten, inguruetan arte gutxi dago eta. Goiko egurra egur trinkoa, zenez, ikatz ona egiten zuten.</p>

5. Pago-txara; "lantaixa jo"

- **Erref:** BER-335/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:07:22. **Bukatu:** 00:08:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Pago-txara. Tantaia. "Lantaixa jo" egiten zen hainbat urtez behin; handienak bota eta txikiei hazten utzi. Egurra bota, "triskau".

6. Egurra txondor-zuloaren bueltan ipini eta sikatzen laga

- **Erref:** BER-335/010
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:08:31. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Egurra bota, triskatu eta batu. Pilak egiten zituzten. Gero, bizkarrean hartu eta txondor-zulora eramane. Denak neurri berean ebaki eta txondor-zuloaren bueltan ipintzen ziren. Hilabete inguruan han uzten zen, sikatzen, gero errazago egosteko.

7. Txondorra egosi ostean, pare bat egun ikatza ateratzen

- **Erref:** BER-335/011
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondor txikiak egiten zituzten. Mila kilo inguru ikatz ateratzen zuten. Su ematen zitzaionetik 8-10 egun behar izaten zituen egosten txondorrak eta beste pare bat ikatza ateratzeko. Zatika ateratzen zuten, ikatza hozteko.

Ikatzak su hartzen bazuen, ura behar, eta ez zen hain erraza izaten ura inguratzea. Inoiz gertatzen zen zaku barruan su hartu eta dena erretzea ere.

8. Txondorrari betegarria sartu eta zaindu egin behar

- **Erref:** BER-335/012
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:11:50. **Bukatu:** 00:14:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorra egin eta gero, hiru ordutik behin betegarria sartu behar izaten zaio goitik behera, sua bizitzen joan dadin. Bi-hiru egun pasatuta, sua ondo hartu duela ikusitakoan, goiko zuloa estali egiten da eta behean zulotxo batzuk egiten zaizkio, haizea hartzeko. Zaindu egin behar izaten zen, baina ez zuen arrisku handirik. Pago-buruekin egiten zituzten txondorrak zailagoak eta arriskutsuagoak izaten ziren.

9. Txondorra nola piztu; betegarria

- **Erref:** BER-335/014
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:15:13. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorrari betegarria nola sartzen zaion. Txondorrari su emateko, brasa egiten zen kanpoan eta hura botatzen zitzaion barrura. Gero, egur txikiak, sua indartu arte. Lehenengo bi-hiru egunean sartzen zitzaion betegarria.

10. Gauez ere txondorra zaintzen

- **Erref:** BER-335/015
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:18:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Gauez ere zaindu egin behar izaten zen txondorra eta betegarria sartu. Anaiak eta biek txabolan egiten zuten lo. Anaia izaten zen eskaileran gora igo eta betegarria sartzen ibiltzen zena. Haga luze bat erabiltzen zen, egurra ondo sartzeko eta brasa mugitzeko. Txondorra ondo betetzea komeni izaten zen.

11. Txondorra egiteko leku laua behar

- **Erref:** BER-335/016
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorra egiteko leku laua behar da. Erdian sakona baldin badu, ura sartzen da eta "illinttia" geratzen da, egurra ondo erretzeke. Hura ezin izaten zen ikatzarekin batera saldu. Beraiek txondorra egiteko leku ona dute.

12. Txondorra lehen egindako lekuan berriz; iduria

- **Erref:** BER-335/018
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:19:56. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txondorra lehen egindako lekuan egiten zen berriz, lehen erretako lurra (iduria) behar izaten zen eta. Lurra azkar erretzen zen, baina iduria lehendik erreta zegoenez, nekezago. Txondor-zuloaren erdigunea bilatzen zen. Batzuek metro inguruko hesola bat sartzen zuten eta handik gora hasten ziren su-etxea egiten. Beraiek behetik hasita egiten zuten.</p>

13. "Pitzeki"ekin eta alturan egindako su-etxea

- **Erref:** BER-335/019
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:22:19. **Bukatu:** 00:23:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Batzuek txondor-zuloan hesola lodi bat sartzen zuten eta haren gainean gurutzeari egiten zuten, su-etxea jartzeko. "Pitzekixak" erabiltzen ziren horretarako, beheko sutarako ebakitako egurrak. Behetik gorainoko pareta egiten zen haiekin.

14. Txondorraren egitura

- **Erref:** BER-335/020
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:23:22. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorra egiteko, lehenengo su-etxea egin behar. Ze neurritako egurrak ipintzen ziren. Beraien txondor-zuloak txikiak izaten ziren eta ez zuten txondor handia egiten. Txondorraren forma. Lehenengo orbelarekin estaltzen da eta gero iduriarekin.

15. Txondor barrura ura sartuz gero, "illinttia"

- **Erref:** BER-335/021
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:25:42. **Bukatu:** 00:26:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Euria ez zen hain kaltegarria izaten txondorarentzat, normalean ez zen barrura sartzen eta. Alboetatik ura sartu eta erdian putzua eginez gero, "illinttia" geratzen zen, ondo egosi gabeko egurra. Ikatza ateratzerakoan zati handiak sartzen ziren zakuetan.

16. Ikatza egiteko zenbat egun behar diren

- **Erref:** BER-335/022
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:26:54. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

1000 kilo inguruko txondorrak hamar egun inguru behar izaten zituen sua sartzen zenetik ikatza ateratzera. Egurra batu eta txikitzen beste 2-3 egun eta txondorra eraikitzen beste bat.

17. Zohiak su-etxearen gainean

- **Erref:** BER-335/023
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:28:10. **Bukatu:** 00:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Txondorraren su-etxea nola egiten zen. Txondorra bera egiten egun bat beharko zen eta estaltzen gero beste egun erdi bat. Orbela eta iduria. Su-etxeari gainean zohiak jartzen zitzaizkion. Belar eta guzti ateratzen den lur zatia izaten da zohia.

18. Txondor inguruan egiten ziren txabolak

- **Erref:** BER-335/024
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:30:44. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txondorren inguruan txabolak egiten ziren. Egurrekin nola egiten zituzten. Bertan lo egiten zuten eta baita jatekoa prestatu ere. Zer ontzi izaten zituzten eta zer jaten zuten. Ardi-ilearekin egindako koltxoiak izaten zituzten.

19. Lapiko eta ontzi konpontzailea baserririk baserri

- **Erref:** BER-335/025
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

Laburpena:

Gaztea zenean, lapikoak eta ontziak konpontzen zituena ("konponerra") baserririk baserri ibiltzen zen. Oñati aldetik etortzen zen, baina izatez galiziarra zen. Ez zuen diru asko kobratzen, baina jaten ematen zioten etxeetan.

20. Besteen basoetan ere egiten zuten ikatza

- **Erref:** BER-335/026
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Inguruko baserri gehienetan egiten zen ikatza. Batzuek baso asko izaten zuten. Beraiek ez zuten hainbeste baso eta beste batzuen basoetan ere egiten zituzten txondorrak, baimena eskatuta, eta zerbait ordainduta. Ikatz gehiena saltzeko izaten zen.

21. Ikatza nora eramaten zuten saltzera

- **Erref:** BER-335/027
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:35:39. **Bukatu:** 00:37:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Ikatza hasieran Soraluzera eramaten zuten saltzeko. Gerora Bergarara ere bai, Otsein lantegira, adibidez. Soraluzen lantegi txiki mordo zegoen. Ez zen erraza izaten banaketa. Ikatz zakuek 20-25 kilo izaten zuten. Beltz-beltz eginda bukatzen zuten.

22. Ikatza ateratzerakoan, hautsa irentsi behar

- **Erref:** BER-335/028
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:37:05. **Bukatu:** 00:38:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikatza ateratzerakoan, hauts asko irentsi behar izaten zen. Eguraldi txarraren zain egoten ziren, hautsa hainbeste harrotu ez zedin.

23. Ikazkintzatik bizi zen jende gutxi

- **Erref:** BER-335/030
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:39:24. **Bukatu:** 00:40:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Bazeuden ikazkintzara dedikatzen ziren batzuk, baina gutxi. Normalean gurasoengandik ikasten zuten eta baserrietakoek egiten zuten ikatza, etxekoen edo ingurukoen laguntzaz.

24. Negu amaieran egurra bota eta udaberri amaieran txondorra

- **Erref:** BER-335/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:40:37. **Bukatu:** 00:42:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Otsail edo martxo inguruan hasten ziren txondorra egiteko egurra botatzen. Hostoa atera baino lehen bota behar izaten zen. Negua luzatu eta elurra egin arren, berdin-berdin botatzen zuten. Egur asko behar izaten zen 1000 kilo ikatz ateratzeko. Txondorra maiatz bukaeran edo ekain inguruan egiten zen, eguna luzatzen zenean.

25. Ikazkinaren txabola, egurrekin eta lasto-azaoekin egina

- **Erref:** BER-335/033
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:45:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

<p>Txondorraren inguruan egiten zituzten txabolak nola eraikitzen zituzten.

Egurra, lasto-azaoak eta zohiak erabiltzen zituzten. Ondo eginez gero, ez zen urik sartzen barrura. Aldapan egiten zuten. Su-lekua egiteko, zuloa egiten zen. Txabola kendu egiten zen ikazkintza lanak amaitutakoan.</p>

26. Ikazkintzan zebiltzanean zer jaten zuten

- **Erref:** BER-335/034
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:45:12. **Bukatu:** 00:46:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Entzunda dauka ikazkin batzuek ardo-zopa hartzen zutela, baina berak ez du halakorik ezagutu. Beraiek zer jaten zuten. Goizean txokolatea. Edateko, ardoa eta pattarra. Kafea beti edukitzen zuten eginda.

27. Bost txondor batera; eskailera, betegarria sartzeko

- **Erref:** BER-335/035
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:46:48. **Bukatu:** 00:48:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Bost txondor inguru egiten zituzten urtean eta denak batera pizten ziren. Gauean batetik bestera ibili behar, betegarria sartzeko. Eskailera ere egiten zuten, txondorraren neurria. Puntak zorrotzuta izaten zituen, lurrean katigatzeko. Normalean beti txondorraren alde beretik igotzen ziren betegarria sartzeko.

28. Etxeak zuritzeko, "kare-bizixa" ekarri eta nola prestatzen zuten

- **Erref:** BER-335/037
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:52:00. **Bukatu:** 00:54:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Etxeginak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak

Laburpena:

Euren etxean ez du ezagutu karobirik, nahiz eta inguruko baserri gehienetan bazen. Harria erretzen zen. Sororako ona izaten zen karea. Bera igeltsero lanean hasi zenean, etxeak zuritzeko, "kare-bizixa" ekartzen zuten kanpotik eta putzu batzuetan egosi egiten zen. Nola prestatzen zuten.

29. Ikatza nola ateratzen zen; galbahean pasatu eta zakura

- **Erref:** BER-335/039

- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:54:56. **Bukatu:** 00:56:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikatz bueltan-bueltan ateratzen da, aitzur baten laguntzaz. Behekoa atera ahala, goikoa behera jausten da. Hoztutakoan, galbahe handi baten pasatzen zen. Behera jausten zen xeheak ez zuen balio izaten. Gainean geratzen zena zakura. Lan zikina izaten zen.

30. Ikazkinaren txabola; sua egiteko lekua

- **Erref:** BER-335/041
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:56:54. **Bukatu:** 00:57:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikazkinaren txabola. Sua egiteko lekuaren inguruko azalpenak.

31. Ikazkinaren txabola barrutik

- **Erref:** BER-335/044
- **Iraupena:** 0:03:28. **Hasi:** 00:58:34. **Bukatu:** 01:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak

Laburpena:

Ikazkinaren txabola nolakoa izaten den erakusten dute barrutik. Oheak. Farola suaren pare inguruan jartzen zen. "Gelatza". Irekia izaten da, kea ateratzeko. Lehengo txabolak txikiagoak izaten ziren. Garai bateko farolak nolakoak ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com